

B- << Euskarazko liburugintza >>

B: J. Gimenez

Área 3- Industrias Culturales

3. Arloa: Kultura Industriak

(Euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

Euskarazko liburugintza

I. Euskarazko liburugintza gaur

Lan hau euskarazko liburugintzaren esparruari lotuko zaionez, ezinbestekoa du, lehenik eta behin, haren neurriak eta ezaugarri nagusiak zehazten ahalegintzea. Lehen atal honetan, beraz, merkatuaren eta ekoizpenaren nolakotasuna finkatzen ahaleginduko gara, gure esparruko kultur industriaren diagnosirantz hurbiltzeko xedez.

Eta horretan ari garela, zailtasun bat aitortu beharra dago, aldez aurretik: eskura ditugun datuak ez dira, euskarazko liburugintzari dagokionez, batere homogeneoak. Nabarmenak dira, gehiegitan, aldeak — titulu kopuruetan eta tiradetan bereziki—, eta zalantzazkoak, askotan, neurketarako erabili diren irizpideak. Bidenabar esanda, hori izango da, seguruenera, epe laburrean konpondu beharreko lehen arazoetariko bat, nekez atera baitaiteke diagnosi zuhurrik datu oker edota kontraesankorretatik. Nolanahi ere, hona hemen txosten honetarako baliatu ditugun ikerketak:

- *Informe de la edición en Euskadi. Comercio interior 2000*, Precisa enpresak Gremio de Editores de Euskadi delakoarentzat eginiko txostena.
- “Euskal liburugintza 2000”, Joan Mari Torrealdai, in *Jakin*, 128, 2002ko urtarrila-otsaila.
- *Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi. Año 2001*, Precisa enpresak Gremio de Editores de Euskadi delakoarentzat eginiko txostena.

I.A. Euskarazko liburuaren kontsumoa

Precisa enpresak eginiko azterketa baizik ez dugunez euskarazko libururik erosten/irakurtzen dutenen kopuruak eta nolakotasuna ezagutzeko, ikerketa horretatik abiatuko gara, baina ez aldez aurretik haren arazo nagusiak agerian jarri gabe: telefono bidez egin zitzaien inkesta, 2001eko azaroaren 12tik 26ra bitartean, Euskal Autonomi Erkidegoko 16 urtetik gorako 900 herritarri. Kanpoan uzten den euskarazko merkatu-zatia handiagoa izango da, seguruenera, lurraldez, bezero-kopuruz baino, baina, erantzuleen adinari begiratzen bazaio, azterketa horren bidez ez dugu modu tajuzkorik izango haur guztien eta gazte askoren irakurtzeko ohitura (edo ohitura eza) zuzenean ezagutzeko.

I.A.1. Irakurleak eta irakurtzen ez dutenak

2001ean, liburuak irakurtzeko ohitura dutenen kopurua %52 ingurukoa da (Espainiako estatuan baino %3 gehiago). Kopuru orokor horrek atzera egin du, aurreko urtetik, %2aren inguruan. Beraz, eta inkestagileek aitortzen duten akats-tartea kontuan izanik, esan daiteke, onenean, irakurzaleen multzoak planto egin duela; alegia, ez dela irakurle berririk sortu azken aldi honetan.

Irakurle horietatik, %30ek irakurri ohi du euskaraz ere (euskaraz soilik irakurtzen dutenak %1 baino ez baitira). Kopuru abtsolutuetan jarrita, 325.000 inguru lagun lirateke, beraz, Euskal Autonomi Erkidegoan euskaraz irakurri ohi dutenak. Datu hori euskararen lurraldea osora estrapolaturik, 400.000tan finka liteke, guztira, euskaraz, oso tarteka bada ere, irakurtzen duten euskaldunak.

Baina, hurbil gaitezen, une batez, irakurle horrengana, nolako itxura duen jakiteko. Liburuak irakurtzeko ohitura duenaren erretratu-robotak honelakoa izango litzateke: emakumezkoa (%9 gehiago, gizonezkoaren aldean), 25-44 urte bitartekoa, hiriburuetan eta 50.000 biztanletik gorako hirietan bizi dena, batxilerduna edo goi mailako unibertsitaria, eta goiko edo ertain-goiko gizarte mailakoa. Euskaraz gehien irakurtzen duenari begiratzen badiogu, berezitasun batzuk antzemango ditugu: gizonezkoa da (%1 gehiago, emakumezkoaren aldean), gazteagoa (16-24 urte bitartekoa), herri txikiagoetan bizi dena eta gizarte maila ertainekoa. Euskaraz oso tarteka irakurtzen duenari begiratuz gero, hona hemen nolako aldeak antzemango ditugun: emakumezkoa (%4 gehiago, gizonezkoak baino), ez aurrekoa bezain gaztea (16-34 urte), eta 10.000 biztanletik gorako herrietan bizi dena.

Baina nolakoa da libururik sekula santan irakurtzen ez duen %22 hori osatzen dutenen batez bestekoa?: gizonezkoa, 45 urtetik gorakoa, ikasi gabea edo oinarrizko ikasketak egin dituen, beheko edo ertain-beheko gizarte mailakoa eta 50.000 biztanletik beherako herrietan bizi dena. Liburuak irakurri arren, euskaraz inoiz irakurtzen ez duen %67aren berezitasuna, aurreko multzoaren aldean, hauek dira: gizonezkoa izanik, gazteagoa da (35 urtetik gorakoa), batxilerduna ere izan daiteke eta hiriburuetan edota oso herri txikietan bizi dena.

I.A.2. Euskaraz irakurtzen dutenen apeta

Zein liburu-mota irakurtzen duten euskaraz irakurtzen dutenek?: eleberrizaleak dira, alde handiz, gehienak (%62). Bigarren multzoa "humanitateak" izeneko zaku bitxiari dagokio (%14). %10etik gertu, poesia eta antzerkia datoz. Gainerakoak ez dira %5era iristen. (Haur eta gazte literatura oso atzera agertzearen arrazoa, ustez, inkesta 16 urtetik gorakoei egin zaiela da, eta hortik sortzen da salmenta/irkausketa desfasea.)

Datu horiek emaitza orokorrekin (hizkuntzaren berezitasunik gabe, alegia) erkatuz gero, zera ikusiko dugu: euskal irakurleak gutxiago preziatzen du eleberria (%25 gutxiago), eta gehixeago "humanitateak" (%2 gehiago). Gainerakoetan, urritasun berdintsuan dabilta portzentaiak.

Nork zer irakurtzen duen aztertuz gero, honako ondorio hauek aterako ditugu: 25-34 urte bitarteko emakumezkoak eleberrizaleagoak dira, eta 45 urtetik gorako gizonezkoak, berriz, "humanitate" zaleagoak. Poesia, emakumezkoek eta gazteek (16-24 urte) irakurtzen dute, eta antzerkia, berriz ere emakumezkoek. Komikizalea, gizon gaztea da (16-24 urte) eta 35-44 urte bitarteko gizonezkoa da gai zientifikoetarako joera sendoena erakusten duena.

I.A.3. Irakurzaletasuna eta kultur ohituren berrikuntza: hainbat ondorio

Lehen aipatu dugunez, irakurleak galtzen ari garela dirudi, eta interesgarria izango da jakitea zertan ematen den orain, lehen irakurtzen ematen zen denbora: %47 inguruk lan egiten ematen du denbora hori. Gainerako portzentaiak oso urrun daude aurretik: ikasten, %11-k; telebista aurrean, %8-k; zineman, %8-k ere; kirolean, %5ek; Interneten nabigatzen, %3-k. Hori, zaletasunei dagokienez, zeren eta badira beste datu batzuk, zaletasunekin hain era zuzenean lotzen ez direnak: %18-k, adibidez, ikusmeneko arazoak ditu; %12-k, umeak zaintzen ematen du orain irakurketarako denbora; %8-k, lagunekin edo familikoekin ateratzea edo egurastea du orain gustukoagoa.

Ikusten dugunez, liburua akabatu behar omen zuten euskarri berriak (zinema, telebista, Internet) oso atzean geratzen dira, lanaren edo ikasketen aldean. Antza denez, arazo osoz baieztatu dezakegu benetan sakona dela, irakurzaletasunaren esparru honetan ere, kultur eta bizi ohituren aldaketa. Bizimodu berria (eta aurrerantzean etengabe berrikuntza izango omen da lege egonkor bakarra) ez da irakurzaletasunaren adiskide, eta egitate horrek, dudarik batere gabe, neurri handi batean baldintzatuko du hemendik aurrera liburugintza, oro har, eta are gehiago euskarazkoa. Puntu honetara ezker, eta arazoak bete-betean ukitzen duenez euskal editorearen lana, komenigarria izango da, akaso, kultur ohituren berrikuntza horren muinean dagoena zehazte alderako ahalegina egitea, hurbilpen moduan bada ere eta han-hemenka dabilta irizpide sendoenak laburbilduz:

1. Gizabanakoa eta gizartea gero eta gehiago da, besterik baino lehen, merkatu-balio bat, eta, horrela, kultur kontsumoa gailendu zaie, mendebaleko gizarteotan bederen, kulturgintzaren balio abstraktoagoei.
2. Kultur merkatuak, beraz, kulturgintzaren eremutik kanpoko irizpideen arabera arautzen dira, gero eta era nabarmenagoan.
3. Ideien trafikoak, oro har, gero eta gutxiago jarraitzen die kulturgintzaren baitako irizpideei, eta gero eta morrontza agerikoagoa du irabazien eta galeren logikarekiko.

Kontrapuntuan, beste hainbeste baieztapen jar ditzakegu aurrekoen parez pare:

1. Gizabanakoak eta gizarteak gero eta baliabide ugariago eta aberatsagoak dituzte eskura, kulturgintzan era autonomoan parte hartzeko.
2. Kultur merkatuak gero eta bide autonomoagoak bilatzen ari dira egitura ekonomiko nagusien alboan eta altzoan.
3. Ideien trafikoa bermatzeko beharrezkoak diren bitarteko teknikoak gero eta eskuragarriago eta merkeagoak dira.

Paradoxa da, beraz, kulturak gaur egun aurrera egiteko aukeratu duen bidea, baina paradoxa erraldoi horretan bertan bila dezake, agian, kulturgintzak bere salbabidea, eta, orobat, liburu edizioak: editoreak, oso bereziki Euskal Herrian lan egiten badu, bere errotara ekarri behar ditu alor guztietako mundializazioek eta berrikuntza teknologikoek etengabeen sortzen dituzten erretanak. Errota toki egokian kokatzea da kontua, eta, horrekin batera, ehotzeko nahi den alearen kalitatea behar bezala zaintzea.

Zergatik diogu, baina, bereziki zaindu beharko dituela kontu horiek euskal editoreak? Ekonomiaren alorretik dator, oraingoan, erantzuna: euskal editorearen errotara iristen den alea oso ugaria eta kalitate onekoa da, batez bestean, baina jende gutxi antzean bizi da auzoan, eta, gainera, ez dira den-denak guztiz ogi zaleak. Hori gutxi balitz, ogi zale diren horiek, atzerriko garietatik dastatzea ere dute gustukoa, eta, jakina, ezin eskatuko zaie ogia besterik ez jatea!

Beraz, kalitatezko irina egitea bada helburua, euskal editorearen errotan kontu handiz (akaso besteetan baino handiagoz) zaindu beharko dira kostuak, bai egituraren alorrekoak, baita gainerakoak ere, oso bereziki tiradari eta promozioari dagozkienak.

I.B. Euskarazko liburu ekoizpena, ekoizleak eta salmenta

Jarraian ageri diren datuak bi iturburutatik datoz: oinarri gisa, Precisa (aurrerantzean, PRE) enpresaren *Informe de la edición en Euskadi. Comercio interior 2000* hartu dugu, eta, aurrekoaren datuekiko aldea nabarmena denean, Joan Mari Torrealdaireren (aurrerantzean, JMT) "Euskal liburugintza 2000".

I.B.1. Ekoizpen kopuruak

- **Tituluak:** Euskadin 2000. urtean argitaratu ziren 3.066 liburuetatik, 1.589 [JMT: 1.519] atera ziren euskaraz (%52). PRE-ren arabera, aurreko urtearekiko hazkunde orokorra %13koa izan zen, eta euskarazko liburuetan, %17koa. JMT-k, aldiz, 1.589 titulu zenbatu dituen 1999rako (PRE-k baino 229 gehiago), %4,4ko jaitsiera ematen du euskarazko ekoizpenean. Aldeak alde, garbi geratzen da, azterketa batean zein bestean, 1996an hasi zela euskarazko liburuen ekoizpenaren goranzko joera nabarmena (500 inguru gehiago 2000n 1996an baino, ordu arteko urtetik urterako igoera-jaitsierak 100 inguru tituluak izan ohi ziren bitartean).
- **Nobedadeak eta berrargitalpenak:** JMT-rena denez bereizketa hau egiten duen bakarra, haren datuak ekarriko ditugu hona: 2000n aurreko urtean baino 124 nobedade gutxiago atera ziren bitartean (- %11), 54 titulu gehiago berrargitaratu ziren (+ %12). 90etik 2000ra, bestalde, ia etengabekoa izan da euskarazko berrargitalpenen hazkundera. JMT-ren balorazioa, hitzez hitz: "Egonkortasuna ematen dio berrargitalpenak liburugintzari (...) Urtez urte, emeki-emeki gora egiten badu produkzioak neurri handi batean berrargitalpenari zor zaio, eta ez urteko produkzio berriari".

Laburbilduz: %33koa izan da, gurean, 2000ko berrargitalpenaren pisua urteko ekoizpen osoarekiko, eta datu hori Europako hainbat herrialdeetakoekin erkatuz gero (JMT-ren datuen arabera, beti ere), Alemania eta Espainiakoaren gainetik dago, eta Frantzia eta Italiakoaren azpitik.

- **Gaiak:** Alor honetan gertatzen da bi ikerketetako irizpideen arteko alderik nabarmenatariko bat, ez baitatoz bat sailkapen multzoak. JMT-rena da, gure ustez, zehaztasunez hobea, eta hartatik atera ditugu, beraz, datu esaguratsuenak: 2000n euskaraz argitaratu ziren liburuetatik, %33,5 (509) izan zen hezkuntza-irakaskuntza alorrekoa; %24,5 (371) haur eta gazteentzako liburuak; %16,8 (256) giza/gizarte zientziakoak; %16,8 (256) helduentzako literaturaren alorrekoa; eta %8,4 (127) gainerakoak (aisia, zientzia, teknika, erlijioa, etab.).

Alor bakoitzeko kopuruen hazkundeari begira, zera esan dezakegu: hezkuntza/irakaskuntza alorreko liburuek behera egin dute aurreko urtearekiko (42 titulu gutxiago), eta multzo honetan (eta honetan bakarrik) gailentzen zaizkie berrargitalpenak (%59,5) lehen edizioei, aurreikus zitekeen bezala. Bestalde, haur eta gazteentzako liburuen ekoizpenak aurreko urtekoari eutsi dio (+ %3), eta giza eta gizarte zientzietako alorrekoenak %17ko pisua galdu du. Daturik aipagarriena, berriz, helduentzako literaturak ematen digu: %26,7ko hazkundez izan du aurreko urtearekiko, eta 90eko hamarkadako batez bestekotik (198 titulu urteko) gora jarri da (256 titulu 2000n).

- **Tiradak:** PRE-ren arabera, euskarazko liburuen batez besteko orokorra 2.902 alekoa izan da 2000n (guztirakoa baino %10 gehiago). Helduentzako literaturan, 1.841 alekoa da (guztirakoa baino %37 gehiago), eta haur eta gazte literaturan, aldiz, 2.411 alekoa (guztirakoa baino %18 gutxiago). Aurreko urteekin konparatuta, helduentzako literaturan gora egin du batez besteko tiradak, baina bi urte lehenagoko kopurua berdindu gabe. Haur eta gazte literaturan, berriz, behera egin du batez besteko tiradak, baina gora egin du bi urte lehenagoko kopuruaren aldean. Kopuru horiek, ordea, ez datoz bat euskal editore gehienek pertzepzioarekin: estimazio hobea dirudi 1.500/2.000ko batez besteko tirada (handiagoa, seguruenera, irakaskuntza eta haur eta gazte liburuetan; txikiagoa, literaturaren alorrean). Nolanahi ere den, nabarmena da Europako beste lurraldeetatik bereizten gaituen aldea: Frantzian, 8.000 inguru; Italian, 5.000 inguru; Espainian, 3.700 inguru.

Hala ere, eta 2002ko Frankfurteko azokan kontrastatzerik izan genuenaren arabera, joera guztiz orokorra da tiradaren jaitsierarena, eta (Alemaniako eta Espainiako editore nagusien aitortpenen arabera bederen) nobedadeen jaitsiera planteatzen ari da, han-hemenka, horrela tiradak handiagotzeko itzaropenean. Hizkuntz normalizatueta esparruetatik ari dira, noski, horrelakoak proposatzen dituztenak, eta zalantzazkoa iruditzen zaigu, oraingoz, euskararen eremuan ibilbide paralelo batetik abiatu beharko ote genukeen. Garbi dago, nolanahi ere, kultur industriaren alor honek duen ahuleziarik markatuenetakoa dela, beharbada, euskarazko liburuen tirada urria.

I.B.2. Ekoizleak eta salmenta

- **Editoreak:** JMT-k 161 ekoizle zenbatu ditu 2000n, 1.519 titulutarako. Horietatik, 83 editorek titulu bana kaleratu dute 2000n, eta 124k, hiru edo gutxiago. Urtean 20 titulu baino gehiago argitaratu zuten argitaletxe komertzial pribatuek, guztira, 967 titulu plazaratu zituzten (ekoizpen osoaren %63,6). Epe berean, edizio publikoak gehi ez komertzialak kopuru osoaren %30 bete du (hiru editore publikok soilik gainditu dutelarik 20 titulu mugan: Eusko Jaurlaritzak, EHU-k eta HABE-k). Ekoizpen barreiatu batez ari gara, bada, euskarazko liburugintzaz hitz egiten dugunean. Bestalde, edizio publikoa batera hartuz gero, honako ondorio hau aterako genuke: ekoizpenaren arabera, instituzioek osatzen dute euskal argitaletxerik sendoa: titulu guztien %18,2 (euskal argitaletxe komertzial handienak %15,3 argiatartzen duen bitartean).
- **Fakturazioa:** PRE-ren arabera, euskarazko liburuari dagokion fakturazioa Euskadiko argitaletxeen fakturazio osoaren %35,3koa izan zen 2000n (25,2 milioi euro; 4,2 mila milioi pezeta). Fakturazio hori horrela banatzen da:
 - Eskola eta unibertsitaterako testuak, euskarazko fakturazioaren %51 dakar.
 - Helduentzako literaturak, %11.
 - Haur eta gazteentzako liburuak, %26.
 - Gainerako gaiek (giza/gizarte zientziak, dibulgazioa, liburu praktikoak, hiztegiak, entziklopediak, etab.), %12.
- **Liburuaren merkaturatzea:** PRE-ren arabera, liburudendetan eta liburudenda-kateetan saltzen dira euskarazko liburu gehienak (%67,7), enpresa eta instituzioei saldutakoak %14,2 dira, eta saltoki handietan saldutakoak, %10,8. Deigarria da, atal honetan, kreditupeko salmentaren jaitsiera (1998ko %9tik, 2000ko %4,1era), deigarriagoa gertatzen da datu hori atal bereko fakturazio osoarekin erkatuz gero (%10,6, 2000n). Laburbilduz: esparru berezkoagoa du euskal liburuak liburudenda, baina baita ere saltoki handia (azken kasu honetan, seguruenera, haur eta gazteentzako liburuari esker). Oso txikia da kioskoetako eta liburu-klubetako salmenta, euskarazko liburuari dagokionez.

I.C. Diagnosi baterako apunteak

Orain arte emandako datuen fidagarritasunak dakartzan eta aipatu ditugun arazoak oraingoz alde batera utzita (lehentasunetan oso goi mailakoa bada ere, hain zuzen ere, euskal liburugintzarako neurketa sistema egonkor eta fidagarriago bat lortzea), sektorearen ezaugarri nagusiak zehazten hasteko moduan gaude:

1. Euskarazko edizioa, oro har, dinamikoa da, titulu ekoizpenari dagokionez. Dinamikotasun horrek, ordea, ez du pareko etekinik lortzen fakturazioari dagokionez: liburu ekoizpen osoaren %51,8k fakturazio osoaren %35,3 baizik ez du hartzen. Garbi dago, beraz, euskarazko editoreak egiten duen eginahalak behar baino etekin dezentez urriagoa jasotzen duela, eta ahulezia hori nabarmen islatuko da euskal editorearen egituretan, ahalbideetan eta garapenerako aukeretan. Horrenbestez, sektorearen industri eta finantz egitura erabat baldintzatzen duen ahulezia baten aurrean gaudela esan dezakegu.
2. Literatur edizioa da (adin guztietarako produkzioa batera hartuz gero) euskarazko liburu ekoizpenaren dinamizatzaile nagusia, nahiz eta, fakturazioan, irakaskuntzarako testutik dezente atzetik dabilen. Esan daiteke, beraz, irakaskuntzarako testugintza dela euskal edizioaren euskarri ekonomiko nagusia (fakturazioaren erdia, hain zuzen ere).
3. Euskal liburuaren merkatura iristen den eskaintza gero eta zabalagoa da egiletan zein titulutan. Ez dator ezaugarri honekin bat, alabaina, argitaratutako liburu bakoitzaren etekina, batez besteko tiradak, azken urte luzeotan, beherakako joera nabarmena baitu. Praktikan —eta alde batera uzten badugu eskolak edo irakaskuntzak alde edo moldez bideratzen duen merkatu zatia, honek, azken batean, erosketa gidatuari dagozkion legeen araberako ibilbidea egiten baitu— gorago (eta PRE-ren eskutik) aipatu dugun 400.000 irakurle potentzialetako balizko kopuru hori dezentez beherago geratzen da. Helduen literaturaren kasuan, 4.000 irakurlek osaturiko merkatugune egonkor batez hitz egin genezake. Euskarak, bestalde, inguruko hizkuntzekin partekatzen du irakurle multzo “fidel” (eta, noski, kontsumo-ahalmen mugatuko) hori. Beraz, euskal editoreak liburu bakoitzean bere gain hartzen dituen arriskuak gaztelaniazko merkatuan ohi diren baino handiagoak dira.

4. Salbuespenak ahanztekoak ez badira ere, euskal editoreak ez du kontzentrazio enpresarialaren bidetik jo, oraingoz. Badirudi hobesten duela, kontzentrazioak eman dezakeen babes ekonomikoaren gainetik, independentziak ekar diezaiokeen askatasuna. Garbi dago, hein berean, dinamika horrek nolabaiteko hauskortasuna ekar diezaiokeela sektorearen egiturari. Ez da batere arrotza, hala ere, joera hori, Europako literatur edizioan behintzat areagotzen ari den atomizazioa kontuan hartzen badugu. Ekoizpen eta salmenta modu modernoek, bestalde, erraztu baizik ez dute egiten, teoriarik badarik ere, bide hori.
5. Ekoizpenaren kalitateaz hitz egitea beti kontu labaina gertatzen den arren, begibistakoa da ezinezkoa dela kalitatezko sorkuntzarik gabeko liburugintza homologagarririk lortzea. Gure merkatuaren neurriak eta gainerako ezaugarriek areagotu egiten dituzte arau horren ondorioak, sortzailea baita, gurean, berez ahulezia garbiak dituen sektore baten katebegirik ahulena. Akats handiegia litzateke, euskarazko liburugintzaren etorkizunerako bidea diseinatzerakoan, euskal sortzailearen lanaren ordaina merkatu harreman soilen baitan uztea, kalitatezko sorkuntzak ez baitio hizkuntz eremuaren handi-txikitasunaren legerari jarraitzen. Beste hainbeste esan dezakegu itzultzailearen lanari buruz —bere eskalan bada ere—, homologagarria nahi dugun liburugintza batek guztiz ezinbestekoa baitu itzulpenaren ekarria.
6. Aurreko apunteen arabera, euskarazko kulturgintzaren bilakabide orokorrekiko lotura estua duen sektorea da euskal liburugintzarena. Izan ere, egitura eta ekonomia alorreko datuek berretsi baizik ez dute egiten aski begibistakoa dirudien baieztapen hori. Bestela esanda, euskararen kultur eremu berez txikiak, hizkuntz normalkuntzaren bidetik ahalik eta gehien garatuta ere, txikia izaten jarraituko du etorkizuneko hipotesirik onenean.

Bestalde, mendebaleko gizarteetan guztiz normal bilakatzen ari den kultur aniztasunak, gurean, gainera, gizarte beraren baitako eleaniztasunaren ezaugarri erantsia ere badarama, horrek dakarren kultur merkatuen solapamenduarekin. Bi norabideetan berdintsu funtzionatzen duen harremana da, beraz, euskal liburugintza eta euskararen beraren garapen soziala lotzen dituenena. Zera da, beraz, kontua: bestelako neurri eta ezaugarri soziopolitikoak dituzten kultur merkatuetan ez bezala, ekimen publiko eta pribatuaren arteko sinergia etengabeak eta adostuak behar ditu euskarazko liburugintzak, kultur industria den aldetik beharrezkoa duen sendotasun egonkorra lortuko badu, garbi baitago gaur egun berezkoa duen merkatuak (eta, seguruenera, bihar izan lezakeen zabalena ere) ahalegin-etekin ratio zaila duela ezaugarri nabarmenena.

II. Euskarazko liburugintza etorkizun baten bila

II.A. Sektore sendo baterako bidean, euskarazko merkatuaren neurriak eta berezko ezaugarriek sortzen dituzten desorekak zuzentzea

II.A.1. Enpresen egiturak sendotzea: Argitaletxeen egitura sendotzeko ahalegiean editoreak bere gain hartu behar duen zama ekonomikoa arintzea, helburu jakin batzuekin lotutako industria-laguntza publikoen bidetik. Argi gera bedi jarraian aipatzen direnek lurralde eta instituzio-sail desberdinen partaidetza eskatzen dutela, ezinbestez. Era berean, industria-laguntzarako ildo hauek argitalpen komertzial profesionala sendotzeko xedez planteatzen direnez, argitaletxeen ahaleginarekiko oreka gorde beharko dute, kontua ez baita, honetaz ari garelarik, produktu puntual bat edo beste laguntzea, baizik eta euskarazko liburugintzaren sektoreari funtsa ematen ahal dioten egituren garabidea bermatzea, xede nagusi hauekin:

- Langileak nahiz kanpoko profesionalen lana kontratatzeko.
- Langileen etengabeko trebakuntza bermatzeko, hala nola profesional berriak sortzeko ikasketa bereziak antolatuz.
- Inbertsio teknologikoetarako eta enpresa-egituraren alorreko inbertsioetarako finantzabideak errazteko.
- Urteko argitalpen planen arabeko egitura-kostuetarako.

II.A.2. Merkatua zabaltzea: gune ahulenak sendotzea eta euskarazko liburugintza esparru guztietara helaraztea, sektoreak eta eragile publikoek elkar hartuta bideratu beharreko ekinbideez:

- Zientzia eta teknikaren esparruko testuak (dibulgaziozkoak barne), unibertsitaterako zein lanbide heziketarakoak eta aisialdirako liburuak argitaratzeko egitarau adostuak itxuratzea.
- Literatur genero minoritarioen (poesia eta saiakera, bereziki) presentzia bermatzea, salneurriaren alorreko lehiakortasuna erraztuz.

- Irakurzaletasuna bultzatzeko jarduera adostuak diseinatzea, gizarte alor desberdinen arabera.
- Argitaletxeen promozio lana erraztea, hedabide idatzi nahiz ikusentzunezkoetan kritikarako, iruzkinetarako eta promozio soilarentzat espazioak bermatzen lagunduz, eta langintza horretarako profesional idependienteen lana kontratatzearen kostuak arinduz.
- Eskolaren esparruan, gelako eta ikastetxeko liburutegi egokiak sortzea, eta haiek kudeatzeko eta dinamizatzeko pertsonala prestatzea. Era berean, lehentasunezkoa da irakurketaren inguruan lan egiten duten irakasleei informazio egokia eta orekatua (merkatuaren tirabiretatik askea) helaraztea, hala nola irakurzaletasuna bultzatzeko teknika didaktiko egokiak sustatzea.
- Liburutegi publikoetan, era berean, euskarazko fondoaren dinamizaziorako jarduerak mamitzea, irizpide profesionalen arabera.

II.A.3. Ekoizpena laguntzea, profesionaltasunaren irizpideen arabera: editore profesionalen eginkizun nagusietariko bat liburu fondo sendoa lortzea baldin bada, bide horretan egiten den ahaleginak izan behar du erabateko lehentasuna, ekoizpena laguntzeko xedez era daitezen laguntza modu guztietan. Kaleratutako liburu guztiak era berean laguntzeak, sarritan iruzurrerako bidea emateaz gain, penalizatu egiten baitu egitura eta fondo sendoen alde lanean ari den argitaletxea. Dakigunez, euskarazko edizioaren etorkizuna ez da jokutzen ari tituluen ugaritasunean soilik, baizik eta kalitatearen eta merkaturatze egokiaren zelaian ere, eta parametro horiek askoz ere gertuago daude, zalantzarik gabe, argitaletxe profesionalen ahalbidetatik, noizbehinkako editoreengandik edota instituzio batek edo besteak jartzen duen dirua jasotzeko xede bakarrarekin argitaratzen duenarengandik.

II.A.4. Argitalpen publikoa murriztea: erakunde publikoen argitalpen merkaturagarriak argitaletxe komertzialekin kontratatzea da, alor honetan, alferrikako edota hilik jaiotako edizioaren kutsadura saihesteko bidea.

II.A.5. Sorkuntza babestea: literatura nahiz irakaskuntza maila desberdinetarako liburuak euskaraz sortzeak egilearentzat gaur egun dakarren penalizazio ekonomikoa baztertzea, sortutako lanen ezaugarrien arabera pizgarri-sistema bat eratuz, ez argitaletxeei dagozkien eskubide-ordainketak murrizteko, baizik eta sortzailearen lana ekonomikoki duinagotzeko xedez.

II.A.6. Euskaratutako literatura eta pentsamendu unibertsalaren presentzia normaltzea: gaur egun alor bateko zein besteko klasikoetara mugatzen den ahalegina egile garaikideengana zabalduz, itzulpen eskubideak erosteak eta itzulpenak dakarten zama arintzearen bide bikoitzetik.

II.A.7. Euskal editore eta idazleen presentzia areagotzea nazioarteko merkatuetan: alor honetan, etengabeko promoziorako planak diseinatu behar dira, instituzioek, editore eta idazleek elkar hartuta, ez soilik nazioarteko azoka nagusietarako, baizik eta askotan erabakiaior gertatzen diren nazioarteko kulturguneetan ere (unibertsitateak, kultur hedabideak, topagune eta jardunaldiak). Kultur eragile publiko eta pribatuak bilduko lituzkeen sustapen-agentzia moduko bat eratzea da horretarako lehen urratsa (Islandiako eredutik, beharbada). Etengabeko sustapenerako gune horrek, jakina, euskarazko liburuak eradaratzeko laguntza-programa egokiak eskaintzeko modurik izan behar du, atzerriko editoreari euskal literatura itzulita argitaratzea errazteko xedez.

II.B. Euskarazko liburuaren lehiakortasuna hobetzea

Liburuaren zikloak, bere osotasunean hartuta, beste hiru katebegi ditu, argitaletxe eta sortzaileez gain: inprimaketa, banakuntza eta saltokien sarea. Hiru horietan aurkitzen ditu euskarazko liburuak, modu bateko edo besteko arazoak, eta arazo horiek dira atal honetan aztertu nahi direnak.

II.B.1. Euskarazko liburua inprimatzearen kostua arintzea: euskal liburuaren batez besteko tiradei buruz esandakoetan oinarri hartuta, zera baieztatzeko moduan gaude: desoreka garbia jasaten du euskarazko liburuak ekoizpen kostuei begira, eta desoreka horrek, jakina, eragin zuzena du salneurrian. Honainoko ataletan inprimatu aurretiko kostuak arintzeaz jardun baldin badugu, bidezkoa deritzogu inprimatze kostuei buruzko neurriak ere aipatzeari, nahiz eta inprimatzaileen sektorearekin aztertu beharreko neurriak liratekeen, jakina, alor honetarako proposa daitezkeenak. Bi ildotakoak izan daitezke, gure ustez, euskarazko liburuaren inprimatzearekin lotutako neurriak: hobari fiskalak eta paperaren erosketaren laguntzea.

II.B.2. Euskarazko liburua zabaltzearen kostua arintzea: inprimatzeari aplikatu zaion irizpide beraren arabera, eta banatzaileekin zuzenean adostuz gero beti ere, ildo beretsuetako neurriak hartu beharko lirateke, euskarazko liburuaren banakuntzarekin lotuta: hobari fiskalak eta logistika gastuak laguntzea.

II.B.3. Euskarazko liburuaren presentzia egokia bermatzea saltokietan: salbuespenak salbuespen, euskarazko liburuak, gaur egun, arazo nabarmenak ditu saltokietan espazio egokia lortzeko, eta gainerako liburuek baino oztopo gehiago ere bai, fondo zabal bat bezeroen esku izateko. Alor honetan, euskal liburuaren presentziarekin lotutako hobari fiskalena litzateke bidea (noski, sektoreko profesionalen iritzia kontuan izanda beti ere).

III. Euskarazko liburugintzarekiko politika bateratu baten bidean

III.A. Araubideak

Ekimen publikoak, euskarazko liburugintzaren sustapenerako erabiltzen dituen baliabideei ahalik eta etekinik onena ateratze aldera, egitarau bakar baten menpe jarri beharko litzuke instituzio desberdinen ekimenak eta jarduerak, bai lurralde-instituzioei bai eta bestelako eremuetakoei dagokienez. Ezinezkoa dirudi, liburugintzaren alorreko lege baten bidez izan ezean, hain jarduera-eremu eta izaera ugaritako instituzioak plan nagusi baten ildora ekartzea, lege mailako araudi bat izan baitaiteke eskumenak eta ahalbideak bateratzeko modurik eraginkor eta egonkor bakarra.

Lege edo arau multzo horrek honako helburu hauek bete beharko litzuke, ahalik eta adostasun zabalenean:

- Instituzio desberdinen ekinbide eta jarduerak plan nagusi baten gidaritzapean jartzea.
- Sektorearekiko lankidetzaren arautzea.
- Finantza eta ekonomia sektore desberdinen lankidetzaren bideratzea, euskarazko liburugintzaren sustapenerako ekimen bateratuen finantzabideak anizteko xedez.
- Ahal den heinean, euskararen lurralde guztiei neurri bereko garabideak eskaintzea.

III.B. Egituraketa

III.B.1. Liburuaren erakundea: Aurreko atalean aipatutako lege edo arau multzoa kudeatzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu sektorearen eta instituzioen partaidetzaz osaturiko erakunde bat, euskarazko liburuari dagokionez honako eginkizun nagusiak izango lituzkeena:

- Laguntza publikoak bideratzea eta haien erabilera ebaluatzea.
- Liburugintzari buruzko datuak biltzeko eta aztertzeko etengabeko sistema bat eratzea eta kudeatzea.
- Sustapen egitarauak sortzea eta mamitzea, eragile guztiekin lankidetzan, bai barruko merkatuari bai eta nazioartekoari dagokienez (azken alor honetan, II.A.7. azpiatalean aipatzen den nazioarteko sustapenerako agentzia sartuko litzateke).
- Irakurzaletasuna areagotzeko, hala nola euskarazko liburuaren merkatua zabaltzen laguntzeko gainerako ekinbideak sortzea, bideratzea eta ebaluatzea.
- Sorkuntzaren eta sortzaileen irudia gizartean sendotzeko ekimenak bideratzea eta bateratzea.
- Argitalpen publikoa eta ez profesionala esparru komertzialera eramaten laguntzea.
- Euskararen lurralde desberdinetako desorekak zuzentzearen ardura.

III.B.2. Liburutegi Nazionala: adituen iritzira utzi beharreko eztabaida den arren Liburutegi Nazionalarekiko hau, ukazina da modu horretako baliabide batek (eraketak eraketa) liburugintzaren garapenerako izan dezakeen garrantzia.

Jorge Gimenez Bech
2003ko urtarrila
(Kulturaren Euskal Kontseiluarentzako txostena)